



**HAL**  
open science

## Tokiz kanpoko numero komunztadura

Bernard Beñat, B. Oyharçabal

► **To cite this version:**

Bernard Beñat, B. Oyharçabal. Tokiz kanpoko numero komunztadura. 17, Euskaltzaindia - Académie de la langue basque, pp.395-408, 2005. artxibo-00000081

**HAL Id: artxibo-00000081**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000081>**

Submitted on 8 Feb 2006

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

H. Knörr (édit.) *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*, Mélanges offerts en hommage au Professeur Jose Luis Alvarez, Iker-17, Euskaltzaindia, Bilbo, 2005, 395-408.

### **Tokiz kanpoko numero komunztadura<sup>1</sup>**

B. Oyharçabal  
(IKER, CNRS)

#### **1. Numero komunztaduraren erresunptibotasuna.**

De Rijkck (1972) ongi erakutsi zuen bezala, euskarazko perpaus erlatiboetan DS erlatibatua isila da :

(1)  $[\emptyset_i \text{ ikusi nauten}] \text{ lagunak}_i$

(1)eko perpaus erlatiboan DS erlatibatua subjektua da, eta isila baita  $\emptyset$  itxura eman diogu. Sintagma horrek kasu marka ergatiboa hartzen baitu, araberako komunztadura jokarazten du aditzean, 3. pertsona pluralari dagokiona : *-te*. Beraz, DS erlatibatua isildua denarren, aditz komunztaduran gelditzen dira haren  $\phi$ -ezaugarriak ([-PERT ; +PLUR]), perpaus erlatiboa interpretatzerakoan lagungarri gertatzen zaskionak hitzunari, hala nola izenordain erresunptibo bat balitz, hark ere interpretazioa lagun bailezake.

Komunztadura hori ez da erlatibakuntzari lotua, nahiz erlatibatzekeo estrategietan baliatzen den, errazkiago interpretatzen baitira perpaus erlatiboak komunztadura erresunptiboa delarik ; ikus ondoko adibideak :

(2a) *mintzatu natzaizun jendeak*

(2b) *aipatu dizkizudan jendeak*

Komunikazio egoera askotan bata bestearen orde balia daitezke (2)ko bi adibideak. Halere aiseago empletzen da (2b) bestea baino, zeren DS erlatibatuak aditzarekilako komunztadura baitu hartan. Komunztadura hori euskararen gramatikaren arau ohikoen ondorioa da, eta ez du arazo berezirik sortzen.

Beste batzuetan, ordea, perpaus erlatibo konplexuetan ager daitezkeen DSak erlatibatzen direlarik, ohiz kanpoko modu batean baliatzen dugu komunztadura erlatiboetan. Jadanik seinalatua izan da komunztadura mota hau perpaus erlatiboei buruzko literaturan (Oyharçabal 1984, EGLU-V 1999). Hona adibide bat:

---

<sup>1</sup> Eskerrak eman nahi dizkiet komunztadura berezi honen onargarritasunaz beren intuizioen berri eman didaten R. Echepare, A. Elosegi, L. Erriondo, M. Ezeizabarrena, L. Fernandez, B. Hidalgo, J.A. Letamendia, R. Lizartza, X. Mendiguren, P. Petrirena, F. Rey, eta M. Zafiraini. Bereziki eskertzen ditut X. Artiagoitia eta R. Etxepare, idazlan honen lehenbiziko bertsioari eginikako oharrak gogoan izan baititut azken idatzaldiari lotzerakoan. Aipamenezko adibide gehienak OEHko korpusetik (2000) ateraiak dira.

- (3a) *Etxean utzi ditut ekartzeko esan zenidan hiru liburuak*  
 (3b) *Etxean utzi ditut ekartzeko esan zenizkidan hiru liburuak*

## 2. TKNKaren aurkezpena.

(3)ko adibideetan aditz laguntzailea bi modutan agerrarazi dugu: batean (3a: *zenidan*) ez da numero komunztadurarik agertzen, eta bestean (3b: *zenizkidan*), aldiz, bai. Hitzunen artean epai desberdinak agertzen dira perpaus hauen egokitasunari buruz, baina anitzek pluraleko komunztadura daukan perpausa onartzen dute (3b), haietarik zenbaitek nekez onesten dutelarik ere bestea (3a).

(3b) adibide horretan, aginte perpaus bat erratezko aditz baten osagarria da. Ikus daitekeenaz, aginte perpaus hartako objektu zuzena erlatibatua izanik, numero komunztadura agerrarazten ahal da aginte perpaus osagarria gobernatzeko duen aditzaren komunztaduran, erran nahi baitu erratezko aditzari dagokion komunztaduran (*esan zenizkidan*). Uste gabekoa da komunztadura hori zeren DS erlatibatua ez baita erratezko aditz horren objektua. Horregatik, hain zuzen, deitzen diogu **tokiz kanpoko numero komunztadura** (TKNK). (3c)n agerrarazten dugu non gertatzen den TKNK:

- (3c) *Etxean utzi ditut [Op [t' [t ekartzeko]] esan zenizkidan ] hiru liburuak*  
 |\_\_\_\_\_|

Goiko adibideak modu bereko egituretan aurki daitezke, bai *jakin* bezalako aditz trinkoekin, bai eta *uste izan* edo *nahi izan* bezalako lokuzioekin ere, perpaus osagarriko aditza jokatu izanik ere ((1)eko adibidean ez bezala). Hona gisa horretako adibide bana, literaturatik hartuak<sup>2</sup>:

- (4a) *Gizonek zuei egin dietzazuen nahi dituzuen gauza guziak egin ietzezue zuek-ere hei halaber* (Leizarraga, Mat 7-12, eta halaber ABC, 12)  
 (4b) *nola errabian ematen diren, eskapatzen zaizkotenean aztaparretarik oraino behingotz han zituztela uste zituzten arimak* (Joannateguy, *Sainduen bizitzea*, 56)  
 (4c) *oraino erran behar ditugu (...) segurki egin ditugula dakizkigun faltak* (Baratciart, *Giristinoki bizitzeko eta hiltzeko moldea*, 162)

Adibide horietan perpaus osagarria jokatu da. (4a)n perpaus subjontiboa da, (4b,c)n, aldiz, adierazpen perpausa. Hiru kasuetan ikus dezakegu perpaus osagarria gobernatzeko duen aditz jokatu DS erlatibatuarekin komunztatzen dela numeroan: *nahi*

<sup>2</sup> Esan gabe doa bestelako adibideak ere (TKNK gabekoak) edireten direla. Adibidez, Astarloak eskaintzen duen hau: *eskatu biar deusaguna da libradu gaizala, ez bakarrik guk gatxak diriala uste dogunetatik* baita bere *berak gatx diriala dakijenetatik* (Astarloa, *Urteko domeka...* 2.lib. 266)

*dituzuen* (4a), *uste zituzten* (4b), *dakizkigun* (4c), nahiz ez den delako DS erlatibatua aditz horiei dagokien argumentua.

Erlatiboari izen bururik ez darraiolarik ere gerta daiteke TKNK, erlatibo generikoetan adibidez:

(5) *Maitatu behar ditugu (...) kontra ditugula uste ditugunak berak* (Jauretze, *Meditazioneak*, 105)

Nola azterkatu behar ditugu forma horiek? Ez argumentu komunztadura gisa, zeren, jadanik erran bezala, predikatu gobernatzaileak ez baitu horrelako objekturik bere argumentu egituran. Azterbide hori baztertu behar dela erakusteko aski da ikustea zer gertatzen den perpausak erlatibakuntzarik gabe moldatzen baditugu:

(5a) \**Gizonek gauza guziak zuei egin diezazkizueten nahi dituzue*

(5b) *Gizonek gauza guziak zuei egin diezazkizueten nahi duzue*

(6a) \**Arimak han zituztela uste zituzten*

(6b) *Arimak han zituztela uste zuten*

(7a) \**Badakizkigu (faltak egin ditugula)*

(7b) *Badakigu (faltak egin ditugula)*

(8a) \**Kontra ditugula uste ditugu*

(8b) *Kontra ditugula uste dugu*

(5a, 6a, 7a, 8a) adibideen ezgramatikaltasunak erakusten digu erlatibakuntzan gertatzen den zerbaiti lotua dela TKNK, zeren hala ez balitz, (5b, 6b, 7b, 8b) adibideak gramatikalak bailirateke.

### **3. Perpaus erlatiboetako operatzailea eta haren mugimendua.**

Perpaus erlatiboen aztertzeke operatzaile isil baten bidezko azterketa proposatzen ohi da (Oyharçabal 1988, Etchegoyen 1994).

Rizziren (1990) tipologiaren arabera [+PRED] [-N/Z] da operatzaile isila<sup>3</sup>, ingelesez *that*-erlatiboetan gertatzen den bezala: *the man* [Op<sub>i</sub> *that* [I met t<sub>i</sub>].

---

<sup>3</sup> Rizzik (1990:67) proposatzen du KONPen tipologia bat, [+wh] eta [+pred(icative)] ezaugarrietan finkatua. Adibidez, KONP<sup>o</sup> batek [+wh] izanez gero eskatzen du ezaugarri bera duen espezifikatzaile bat (tasun erkaketa gisa aztertzeke litzatekeena minimalismoaren ikuspegian). Orotara lau posibilitate dira :

+ wh – pred : *I wonder what* () [you saw t]

+ wh + pred : *the thing which* () [you saw t]

– wh + pred : *the thing Op* () [you saw t]

– wh – pred : *I know that* [you saw it]

Perpau erlatiboak, bestalde, predikatuak dira, ‘perpau irekiak’, bariabile edo aldagai bat daukatenak. Aldagai horrek, euskaran komunzki agerian agertzen ez denak, FLn balio bat behar baitu postzedenteak ematen dio predikazio operatzailearen (Op) bitartez<sup>4</sup>:

(9a) [Op<sub>i</sub> [t<sub>i</sub> *etorri da*]-en] *gizona*<sub>i</sub>

Operatzailea KONPetik KONPera mugi daiteke:

(9b) [Op<sub>i</sub> [t'<sub>i</sub> [t<sub>i</sub> *etorri da*]-ela] *uste nuen*]-n] *gizona*<sub>i</sub>

Operatzailea mugitzen delarik, mugimenduei dagozkien baldintzak errespetatu behar ditu, hala nola IS konplexuen gaineko baldintza :

(9c) \*[Op<sub>j</sub> [Op<sub>i</sub> [t<sub>i</sub> t<sub>j</sub> *egin duten*] *harginak*<sub>i</sub> *ezagutzen dituzun*] *etxea*<sub>j</sub>

(9c) ezgramatikala da, zeren *Op<sub>j</sub> ...t<sub>j</sub>* katea ez baita ongi eratua<sup>5</sup>.

Dudarik batere gabe IS konplexuen gaineko baldintza bortxatua da orduan, ezen *t<sub>j</sub>* indizeak seinatzen duen erlatibakuntza gertatzen da perpau erlatibo bat duen izen sintagma baten barnean (*hargin* buru lexikala duen IS konplexuaren barnean).

TKNKak erakusten du predikazio operatzaile isilak numero komunztadura zilegizta dezakeela perpau erlatiboaren gorenko aditzean. Posizio ez-argumental batean izanik operatzailea, mota horretako komunztadura da<sup>6</sup>. Alderdi horretarik, numero komunztaduraren bidez seinatua izatea, adierazgarria bide da; ikus urrunago (14).

Ohargarria da DS erlatibatua oso barnean izanik, hiru KONP badituelarik gainetik, TKNK gorenko aditzarekin bakarrik gerta daitekeela, hala nola ikus baitezakegu ondoko adibidean:

(10a) \**etorriko direla uste dituzula erran dizkidazun lagunak*

<sup>4</sup> Operatzailea perpau hastapenean, ezker aldean, agerrarazten dut hemengo perpauetan, Oyharçabalek (1988) eta Etchegoyenek (1994) ez bezala, [Espez,KONP] posizioan.

<sup>5</sup> Minimalismoaren barnean *Op<sub>j</sub> ... t<sub>j</sub>* katea gaizki eratu da zeren barneenik den KONPen okupatua izanik (*Op<sub>i</sub>*) ez baita lokarri laburrena (MLC deitu baldintza : Minimal Link Condition).

<sup>6</sup> Frantsesez ere onartzen da batzuetan horrelako komunztadura (erran nahi baitu posizio ez-argumental batetik bideratua); cf. Kayne (1989):

(i) *Les libertés que j'ai prises*

Ezinezkoa da, haatik, TKNK frantsesez:

(ii) \**Les libertés que vous avez dites que j'ai prises*

(ii) *Les libertés que vous avez dit que j'ai prises*

Euskaraz KONP<sup>o</sup>era mugitzen da aditza, frantsesez ez bezala, eta TKNK, beraz, espezikatzailearen eta buruaren arteko tasun erkatze bati darraiola pentsa daiteke.

\*[Op [t' [t *etorriko direla*] *uste dituzula*] *erran dizkidazun*] *lagunak*  
 \*|\_\_\_\_\_||

(10b) *etorriko direla uste duzula erran dizkidazun lagunak*

[Op [t' [t *etorriko direla*] *uste duzula*] *erran dizkidazun*] *lagunak*  
 | | | |  
 | |\_\_\_\_\_[-TKNK] | |  
 |\_\_\_\_\_ [+TKNK]

(10a) adibidea guztiz ezgramatikala da (10b) onartzen duten hiztunentzat ere<sup>7</sup>. (10)ko kontrasteak frogatzen du TKNK ez dela KONP guztietan gertatzen baina azkenean bakarrik.

#### **4. Kasu aldaketa hungarierazko operatzaile mugimendu luzeetan.**

Euskaraz, hiztunen arabera, aski aldakorra da TKNKaren aurrean hiztunek duten jarrera, eta oro-har bazterreko kontu gisa har daiteke. Halere ohargarria da, beste hizkuntzetan ere TKNKarekin zerbait antza duten fenomenoak aurkitzen ditugula.

Hungarieraz N/Z sintagmen mugimendu luzea gertatzen delarik bi gertakari kausitzen ditugu<sup>8</sup>:

- N/Z hitza subjektua denean perpaus osagarrian, akusatibo gisa agertzen da perpaus matrizean, *kasu aldaketa* jasanez (nominatiboa → akusatiboa)<sup>9</sup>;
- N/Z sintagma akusatiboak objektu-komunztadura badu aditz matrizearekin ([±mugatua] tasunaren bidez).

Ikus ondoko adibideak Maraczenganik (1989:297) hartuak:

(11a) *Kit gondolosz hogy t látta Jánost*

<sup>7</sup> Adibide horiek aski zail dira naturalki erabiltzeko. Halere, arras argia da kontrastea : informazio emaileetan, hamarretarik batek ere ez du onartu (11a), baina zortzik onetsi dute (11b).

<sup>8</sup> Hungarieraz erlatiboetan ere gertatzen da mugimendu luzea. Halere, I. Toth-ek (k. p.) erraten didanaren arabera, zubi aditzekin hiztunek nahiago dute DS erlatibatua perpaus matrizeko osagai egin (kasu delatiboa emanez). (i)ko adibidea gramatikala da, beraz (mugimendu luzearekin et izenordea akusatiboan izanik), (ii)koaren ondoan (mugimendu luzerik gabe eta izenorde erlatibo delatiboan izanik) ; glosak I. Toth-enak dira :

(i) *Odaadtam a ferfi-nek, akit mondtal hogy eljon*  
 gave-1SG the gizon-DAT who-ACC said-2SG.INDEF that comes

'Eman diot etorriko zela erran zenuen gizonari'

(ii) *Odaadtam a ferfi-nek, akirol mondtad, hogy pro eljon*  
 gave-1SG the man-DAT who-DELAT said-2SG.DEF that comes

'Eman diot gizonari zeinetaz erran zenuen etorriko zela'

<sup>9</sup> Kasu aldaketa ez da beharrezkoa hungarieraz, nahiz hiztunek nahiago duten obratu (Kiss 1987:141)

Nor.AKU pentsatu.2SG.MGB KONP ikusi.3SG.MG Jon.AKU  
'Nork uste duzu ikusi duela Jon?'

(11b) *Melyik fiút gondolod hogy t látta Jánost*  
Zein mutiko.AKU pentsatu.2SG.MG KONP ikusi.3SG.MG Jon.AKU  
'Zein mutikok uste duzu ikusi duela Jon?'

Adibide horietan ikusten da i) N/Z sintagma, perpaus osagarriko subjektua izanik, mugitu ondoan ez dela nominatiboan agertzen, baizik ere akusatiboan (*kit*, *melyik fiút*), eta kasu aldaketa gertatu dela, beraz; ii) N/Z sintagmak aditz matrizearekin komunztadura baduela: *kit* 'nor' izenorde akusatiboa [-mugatua] izanik, araberako mugagabeko objektu komunztadura baitu aditzak; aldiz, *melyik fiút* sintagma [+mugatua] izanik, objektu-komunztadura ere [+mugatua] du.

Hungarierazko kasu aldaketa nominatiboa → akusatiboa delako aldaketara mugatzen da. Adibidez, N/Z sintagma datiboan bada ez da gertatzen:

(11c) *Kinek gondolod hogy János könyvet adott t*  
nor.DAT pentsatu.3SG.MG KONP Jon liburu.AKU eman.3SG.MGB  
'Nori pentsatzen duzu eman díola Jonek liburua?'

Adibide hori konpara daiteke (11a)koarekin. Ikus dezakegu (11c)n, N/Z sintagma datiboak atxikitzen duela bere kasua mugitu ondoan, eta beraz aditzak ez duela harekilako komunztadurarik (perpaus osagarria duten zubi-aditzek mugatuan dute objektu komunztadura hungarieran).

Horrelako kasuetan N/Z hitza mugitu dela onartzen den pundutik, erran ote daiteke euskaraz bezalatsuko gertakaria erakusten dutela hungarierazko adibideek? Kasu aldaketaz mintza ote gaitezke euskararen kasuan?

## **5. TKNK eta DS erlatibatuari dagokion kasu marka.**

DS erlatibatua kasu absolutiboan zen orain artino ikusi euskarazko adibide guztietan, eta ez dut besterik aurkitu literaturan ere. Adibidez, (1-2) adibideetan objektu zuzena da DS erlatibatua (*ekartzeko*, eta *zuei egin diezazkizuen* perpausetan), eta (11) adibidean *etorri direla* perpausaren subjektua. Euskal aditzaren morfologian absolutuari baitagokio numero komunztadura, nola obratzen da TKNK, DS erlatibatua absolutiboan ez denean? Alabaina, ikusi dugu posizio ez-argumental batetik egiten dela TKNK, eta, beraz, galda daiteke DS erlatibatuak kasu absolutiboa duten kasuetara mugatua ote den, ala beste marka bat dutenekin ere gerta daitekeen.

Beha diezaiegun ondoko adibide parei. (12a) adibidean DS erlatibatua ergatiboan da, eta (12b)n, berriz, absolutiboan. Halaber, (13a) adibidean, datiboan da DS erlatibatua, eta absolutiboan, aldiz, (13b)n:

(12a) *Anitzetan gonbidatu zaituztela erran dituzun lagunak*

(12b) *Anitzetan gonbidatu dituzula erran dituzun lagunak*

(13a) *Zerbait gertatu zaiela uste dituzun lagunak*

(13b) *Mintzatu nahi zaizkizula uste dituzun lagunak*

Ez dirudi batere kontrasterik baden (12-13)ko adibide pareetan. Horrek erakustera ematen du TKNK ez dela DS erlatibatuak perpaus osagarrian duen kasuaren arabera ematen. Zaila da, haatik, jakitea hemen kasu aldaketa gertatzen den hungarieraz bezala (ergatiboa edo datiboa → absolutiboa), zeren operatzaile isila baitugu eta beraz kasu marka agerikorik gabekoa baita. Numero komunztadura gertatu izana aski ote da errateko kasu aldaketa gertatzen dela euskaraz hungarieraz bezala?

Ez dirudi hala den. Alabaina, batzuetan, usaiak kanpoko flexio berriak sor daitezke TKNKari dagozkionak. Horrelakoetan, kasu absolutiboaren ezarketa honetarik aparte gauzatzen da, numero komunztadura, berriz, TKNKaren bidez bere alde obratzen delarik. Mitxelenaren izkirioetan agertzen den adibide behin baino gehiagotan aipatu batek (Oyharçabal 1984, EGLU-V) erakustera ematen du puntu hori:

(14) *Nik ez ditut gehienbat aurkitu bila nenbiltzanak* (Mitxelena, MEIG VI, 153)

Adibide horretan adizkera jokatua morfologikoki *munstroa* da, Mitxelenak erran zuen bezala: *ibili* aditza NOR-aditza izanik hemen, alde batetik subjeto absolutiboari dagokion komunztadura du (*it-*, 1. pertsona singularra), eta bestetik, TKNKari dagokion pluraleko indizea du (*-tza-*). Predikatu batek kasu absolutiboa bi aldiz ezartzea ezinezkoa denaz gero, nekez, datu hau kontuan izanik (eta TKNKaren ondorio zuzen bat ikusirik hartan), kasu-aldaketa gisa azterka dezakegu euskarazko TKNK (DS erlatibatua absolutiboaz beste kasu bat duelarik).

## **6. TKNK erlatiboetarik kanpo?**

TKNK operatzaile baten mugimendu baten odorioz gertatzen denaz geroz, galdera egin behar da ea zer gertatzen den orain arte aipatu ez ditugun galde sintagmekin, eta galdegaiekin<sup>10</sup>. Mugimendu luzea onartzen duten mintzagai-osagaiekin eta *zein*-izenorde erlatiboekin ere zer gertatzen den ikertu behar dugu. Ikus ditzagun ondoko adibideak:

(14a) *Euskarazko liburuak esan dizut / \*dizkizut erosteko (ez inglesezkoak)*

(14b) *Nongo lagunak esan duzu / \*dituzu etorriko direla ?*

(15a) *Liburuak ere biharko esan dit / \*dizkit ekarriko dituela*

(15b) *Liburuak ere, uste dut / \*ditut zuk ekarri dituzula*

---

<sup>10</sup> Zenbait hiztunek (bik, nire inkestan) ontzat ematen dituzte (14-15)eko perpausetako TKNK kasu batzuk. Gehienek, halere, ene gisa, batere ez.



(15c) *Liburuak ere badakit / \*badakizkit oso garestiak direla*

(15a-c) adibideetan *liburuak ere* mintzagai hanpatua da, eta dagokion perpausetik ateraia da. Gauza bera gertatzen da (14a,b) adibideetan galdegaiarekin eta galde sintagmarekin. Testuinguru antzekoa izanagatik ez da TKNKrik obratzen ahal horrelakoetan.

Are nabarmenagoa da kontrastea absolutiboan ez diren DSeKin<sup>11</sup>:

(16a) *Bilboko lagunei ere badakit horrelako zerbait gertatu zaiela*

(16b) *\*Bilboko lagunei ere badakizkit horrelako zerbait gertatu zaiela*

(16c) *\*Bilboko lagunak ere badakizkit horrelako zerbait gertatu zaiela*

(17a) *Bilboko lagunek esan didazu gomitatu zaituztela*

(17b) *\*Bilboko lagunek esan dizkidazu gomitatu zaituztela*

(17b) *\*Bilboko lagunak esan dizkidazu gomitatu zaituztela*

(16b,c) eta (17b,c) adibideak, gorago ikusi (12a) eta (13a) adibideekin konparatzeko dira, haietan ez bezala perpaus hauetan TKNK ezinezkoa baita. Hitz batean, TKNK erlatiboetan baizik kausitzen ez den zerbait da.

Areago, erlatibo arruntetan bakarrik aurkitzen da TKNK, zeren ez baitirudi *zein*-erlatiboetan TKNKrik ager daitekeela. Hori erakusten digute ondoko adibideek<sup>12</sup>:

(18a) *Etorriko zaizkizu nire gurasoak, zein(ak) esan baituzu ezagutu dituzula*

(18b) *\*Etorriko zaizkizu nire gurasoak, zein(ak) esan baitituzu ezagutu dituzula*

(19a) *Etorriko zaizkizu gizon batzuk, zeinek uste baitut gomitatuko zaituztela*

(19b) *\*Etorriko zaizkizu gizon batzuk, zeinek uste baititut gomitatuko zaituztela*

(18-19) adibideetan, izenorde erlatiboa erratezko aditzaren ondoan izanagatik, ez dugu TKNKrik aurkitzen, ez izenordea ergatiboan delarik (19b), ez eta absolutiboan delarik ere (18b). Berriz ere, aurkaritza garbia dugu erlatibo arruntetako datuekin.

## **7. TKNKaren azterbidea.**

Pentsa daiteke gramatikaren mugetan sortu moldaketa morfofonologiko gisako zerbait dela TKNK: perpaus erlatiboetan aditz gorena azken posizioan izanik, izen buruaren ondoan, hurbiltasun horrek zerbait gisaz nahasketarik sortzen balitz bezala hiztunari solas ariketan. Ikuspegi horretan, TKNK (20)ko ingurumenean gertatzen da:

---

<sup>11</sup> (16b) eta (17b) adibideetan ez dut aldatzen mintzagaiari edo galdegaiari dagokion kasu marka, (16c) eta (17c) adibideetan, aldiz, bai, absolutiboan emanez (kasu aldaketa izanik gertatu behar lukeen bezala). Ikus daitekeenaz, ezgramatikalak dira beti perpausak.

<sup>12</sup> Inkestan inork ez du onartu TKNK (18-19) bezalako ZEIN-erlatiboetan.

(20) [Op [t *etorriko direla*] *uste dituzu*]-n ] *lagunak*

|\_\_\_\_\_|

Kontsideratzen badugu hipotesi honetan *hurbiltasuna* modu arruntenean, erran nahi baitu soinu kateari dagokionean, ulertzekoa dela, TKNKak, gertatu behar luke perpaus erlatiboko aditzaren eskuinean agertzen den lehenbiziko izen buruarekin.

Ikus ditzagun puntu hau egiazta edo gezurta dezaketen zenbait adibide:

(21a) \**Ongi egin dela erran dituzun jende horien etxea salgai omen da*

|\_\_\_\_\_|

(21b) *Irakurri al dituzu egiazki, ongi eginak direla erran dituzun zure anaiaren gazte denborako liburua?*

(21a) adibideak erakustera ematen du, pluralean den DS bat agertzen denean perpaus erlatiboaren eskuin aldean, TKNK ez daitekeela harekin gerta, baldin ez badagokio perpaus erlatiboaren buruari. (21b) adibideak, aurreko puntua indartuz, egiaztatzen du, DS modifikatuak izenlagun bat baino gehiago duelarik, halako gisaz non perpaus erlatiboaren eta buruaren artean DS bat edo gehiago agertzen baitira (*zure anaiaren gazte denborako*), TKNK, halere, berdin gerta daitekeela katea mintzatuan aski urrun den izen buru pluralarekin.

Beraz, azterketa sintaktikoa eman behar zaio TKNKari, gorago aipatu hurbiltasun konzeptua sintaktikoki definituz: TKNKak DS modifikatuaren buruarekilako komunztadura erakusten du, besterik ez.

## **8. TKNK gramatika arau bati ote dagokio?**

Behin baino gehiagotan aipatua izan da performantza edo ariketaren garrantzia euskal perpaus erlatiboen azterketan, alde handia baita haietan gramatikaltasunaren eta onargarritasunaren artean, erlatibatze eskalari dagozkion kontuetan bereziki.

Gaur badirudi ikuspegi nagusia dela gramatika arauak zilegitzatzen dituzten perpaus asko solas ingurumen berezi batzuetan baizik ez direla onesten, hots, gramatikak eskaini aukeren artean ariketa mailako murrizketak badirela; (ik. EGLU-V).

Adibidez, gauza ezaguna da badela anitz hizkuntzatan, eta euskararen ere bai, joera berezi bat DS modifikatua eta DS erlatibatua ingurumen morfosintaktikoetan bertsuetan agerrarazteko. Kasu paralelismoak erlatibatze eskalan sortzen dituen errazbideak horrela azaltzen ohi dira :

(22a) ??*Aski duzu gure alaba ezkonduko den gizona ikustea*

(22b) *Aski duzu gure alaba ezkonduko den gizonarekin joatea*

Erlatibo berak ditugu (22)ko adibideetan. Hala ere, (22b) anitzez onarrezagoa da (22a) baino. Kontraste hori kasu paralelismoaren bidez esplikatzeko ohi da. (22a) adibidean DS erlatibatuari komitatiboaren marka dagokio, DS modifikatua absolutiboan izanik. Komitatiboa erlatibatzeke eskalan nekez erlatibatzen diren kasuen sailean baita, hiztun askok zalantzak edo nekezia handiak dituzte, kontesturik kanpo bereziki, (22a) onartzeko, eta nahiago dituzte bestelako antolamenduak dituzten formak, adibidez (22b)n aurkitzen dena.

(22a) eta (22b)ko erlatiboak arras berdinak dira, eta DS modifikatuari dagokion kasu markan datza bi adibideen arteko diferentzia, (22b)n DS modifikatuak DS erlatibatuaren kasua baitu.

Jokamolde hau eta TKNK-an aurkitzen duguna elkarrekin konparatzen baditugu, aurkako simetrian direla erran daiteke: kasu batean (erlatibatzeke eskala) gramatikak hiztun askok nekez baizik onesten ez dituzten perpausak haizutzen ditu, eta beste kasuan (TKNK), berriz, gramatikak bideratzen ez dituen antolamendu morfosintaktiko batzuk onargarri –hiztun askorentzat ohiko arauen arabera antolamenduak baino onargarri– bihurtzen dituzte interpretazio joerak.

Aurreko puntuarekin zerikusia duen beste gertakari bat ekartzen digu gogora TKNKak: gorago aipatu kasu paralelismoa, erlatibagaitzasunaren arintzeko edo kentzeko bide baten eskaintzeaz bestalde, hizkuntzaren joera sakon bati ere baitagokio. Haur mintzairan agertzen da garbikienik joera hau, maiz eta maiz haurrek zuzendu behar dituzte beren erranak, sintagma modifikatuari DS erlatibatuaren kasu marka ezartzeko joera baitute (Oyharçabal 1985): *sagua harraparatu duen katuak ... katuari ... eman diot*. Horrelako kasuetan hiztunak DS erlatibatuaren kasua ematen dio DS modifikatuari, baina perpaus matrizean kasu hori desegoki dela ohartzean, zuzentzen du bere errana, izen burua errepikatuz eta kasu egokia erantsiz orduan.

Iduri luke, bada, beste maila batean, TKNKak ere gisa batez horrelako zerbaiten aurrean ematen gaituela. Hiztunek badugu DS modifikatuaren numero markatua (plurala, beraz) perpaus erlatiboko aditzean agertarazteko ahal dugun guztietan, hots aditzaren argumentu egiturak perpaus osagarria aukeratuz horretarako biderik uzten duen guztietan<sup>13</sup>. Hala egiten dugu anitzek, zenbaitek errazkiago, besteek nekezago.

---

<sup>13</sup> Ez gaitzke hurbiltasun kontu hutsetan geldi joera horren adierazteko. Adibidez oso kontraste gogorra da bi perpaus hauen artean, lehenbizikoan TKNK ez baita onartzen, bigarrean, aldiz, bai :

(i) *Urtean zehar bazkaldu \*genituen ostatuak zerrendatu zituzten*

(ii) *Urtean zehar bazkaldu genuela segurki zekizkiten ostatuak zerrendatu zituzten*

Hurbiltasun hutseko kontua balitz, (i) adibidean komunztabide hori posible izan behar litzateke joskeran *bazkaldu* aditzaren subjektua kasu ergatiboan ematen duten hiztunentzat behintzat. Baina ez da horrela gertatzen, iduri bailuke *bazkaldu* iragankorki ulertu behartu dugula hiztunek orduan (objektua izanik DS erlatibatua, ezintasun semantikoa sortuz). Aldiz, osagarri gisa perpaus menderatu bat hartzen duen *jakin* bezalako aditz batekin ez da horrelako arazorik.

Dena den, kontuan harturik TKNK erlatibo arrunten joskerari lotua dela eta hiztunen artean hartaz kausitzen diren intuizio desberdinak direla eta maiz segurtamen gabekoak, zail ikusten dut hartan hungarierazko mugimendu luzeetan gertatzen den bezalako arau baten bidez esplikatzea. Bereziki, ez du iduri kasu aldaketa gertatzen den euskarari, itxura denaz, numero komunztadurak TKNK kasuetan ez baitu kasu komunztadura adierazten (14).

---

TKNKaren alderako joera *jakin* aditzak gobernatu perpaus infinitoeekin nabari da bereziki ; konpara :

(iii) *Zein dira hobekienik egiten dakizun lanak ?*

(iv) *Zein dira hobekienik egiten dakizkizun lanak ?*

Zenbait hiztunek *jakin* aditza erabiltzen dute ohiz kanpoko kasu ezarketa haizutzen balu bezala (hots hautemate aditzak bezala ; cf. *nok igarri zubei dakizuzan edo ez, osatuten zaurijak, ezagututen bedar ona* (Peru Abarka, 49). Ez da harritzekoa haientzat (iv) onargarriago izatea. Baina *jakin* aditza bestela erabiltzen duten askorentzat ere, (iv) anitzez naturalago da (iii) baino.

Dena den hautemate aditzekin ere gerta daiteke TKNK. Beste modu batean ordea. EGLU-Vean (194, (48a)) eskaintzen da horrelako adibidea, literaturatik ateraia :

(v) *Bertze haurreri biltzen ikusi nituen sosek xoratu (...) ninduteyan* (J. B. Elissamburu, Piarres Adame, 20)

(v)ean DS erlatibatua *biltzen* aditzaren objektu zuzena da. Ohargarria da TKNK obratu ahal izateko, Elissamburuk datiboan eman duela erlatibakuntzarik izan ez balitz absolutiboan izanzen zen DSa. Izan ere erlatibakuntzarik gabe perpausa honela litzateke : *haurrak sos / sosen / sosak biltzen ikusi nituen*.

Beraz, (v) TKNKak, errebotez edo, DS absolutiboaren datibatzea ekarri du. Kontuan har, morfologiak horretarako bidea eskainirik ere, komunztadura datiboa ezinezkoa dela (v)ean:

\**haurreri biltzen ikusi nizkien sosak*.

## BIBLIOGRAFIA

- Chomsky, N. 1995. *The Minimalist Program*, MIT Press, Cambridge.
- EGLU-IV. 1994. *Perpaus juntatuak*, Euskaltzaindiko gramatika batzordeak egin gramatika, Euskaltzaindia, Bilbo.
- EGLU-V. 1999. *Mendeko perpausak I*, Euskaltzaindiko gramatika batzordeak egin gramatika, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Etchegoyhen, T. 1994. *L'analyse des relatives dans la théorie du gouvernement et du liage. Le cas du basque*, Mémoire de Maîtrise, Université de Toulouse II-Le Mirail.
- Fernandez, B. 1997. *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*, doktore tesiak saila, EHU, argitalpen zerbitzua.
- Kayne, R. 1989. "Facets of past participle agreement in Romance", in P. Benincà (argit.) *Dialect variation and the theory of grammar*, Foris, Dordrecht.
- Kiss, K. 1987. *Configurationality in Hungarian*, Akadémiai Kiadó, Budapest.
- Kiss, K. 1998. "Identificational focus versus information focus", in *Language*, 74-2, 245-273.
- Marác, L. 1989. *Asymmetries in Hungarian*, Rijkuniversiteit Groningen; 2. argitalpena in ASJUren gehigarriak, XXII, 1991.
- Ortiz de Urbina, J. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.
- OEHko korpusa. 2000. Euskaltzaindiak Orotariko Euskal Hiztegiko testu korpusa, CD-ROM.
- Oyharçabal, B. 1985. *Les relatives en basque*, DRL, Université Paris VII, Paris.
- Oyharçabal, B. 1988. "Operatzaile isila euskarazko perpaus erlatiboetan", in *Euskara Biltzarra. Congreso de la lengua vasca. Lehen atala: Hizkuntz deskribapena*, Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzu nagusia, Vitoria-Gasteiz, 135-140.
- Rijk, R. P. G. de --. *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*, Doktore tesia, MIT.

Rizzi, L. 1990. *Relativized Minimality*, MIT Press. Cambridge, Massachusetts, London, England.